

DEIALDIA: OSASUN ARLOKO I+G+B PROIEKTUAK (ISCIII) - 2022

Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak dei egin du, Carlos III Osasun Institutuaren (ISCIII) bidez, laguntzak emateko 2022. urtean osasun arloko I+G+B proiektuak egiteko. Deialdia 2021-2023 aldiko Osasun Ekintza Estrategikoaren barruan dago, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotua.

Interneteko helbidea:

<https://www.isciii.es/QueHacemos/Financiacion/solicitudes/Paginas/default.aspx>

Deialdiaren helburua:

Finantziarioa ematea kalitate handiko ikerketa proiektuak egiteko osasun alorrean, helburu nagusiak hauek izanik:

- a) Jakintza zientifiko eta tekniko transferitu eta aplikatzea, hobetzeko gaixotasunen prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua eta sustatzeko bai osasun publikoa bai osasun zerbitzuak.
- b) Sinergiak sustatzea, talentua eta enplegarritasuna bultzatzea, eta gobernantza egiturak indartzea, estatuko osasun sistemako asistentzia zentroen gaitasun zientifiko eta teknikoak batuko dituztenak.
- c) Ikertzaile berrien kalitate handiko lehenengo ikerketa proiektuaren finantziarioa sustatzea. Ikertzaile berriztat hartuko dira 1977. urtean edo beranduago jaiotakoak.

Informazio garrantzitsua ikertzaile nagusientzat:

Osasun alorreko ikerketa institutu (IIS) bati atxikitako ikertzaile nagusiek hori adierazi beharko dute zentro moduan eskaera egiterakoan (eskaera egiten duen zentroa edo proiektua egiteko zentroa, kasuan kasukoa). Edonola ere, eta deialdi honi dagokionez, ikertzaileak IIS bakar bati atxikita egon ahalko dira (deialdiko 3.4 artikulua).

Proiektu motak eta iraupena:

Proiektuak mota hautetakoak izan daitezke:

- a) **Proiektu indibidualak:** erakunde eskatzaile batek aurkeztuak eta ikertzaile nagusi batek edo bik zuzenduak.
- b) **Proiektu koordinatuak:** bi azpiproiektu edo gehiagok osatutakoak. Azpiproiektu bakoitzak bere taldea eta ikertzaile nagusia izango ditu.
- c) **Zentro anitzeko proiektuak:** zentro batean baino gehiagotan egingo direnak, protokolo bakar bati jarraituta. Ikusi mota honetako proiektuak egiteko aukerak 82.1.c artikuluan.

Osasun arloko I+G+B **proiektuak egiteko epea 3 urtekoa** izango da, laguntza esleitzeko erabakian zehaztuko den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Dirulaguntza jaso dezaketen kontzeptuak:

Gomendatzen da kontsultatzea deialdiko 80. artikulua, bertan baitaude aipatuta dirulaguntza jaso dezaketen proiektuetako kontzeptuak. **Honako hauek deialditik kanpo geratzen dira:**

- Informatika eta kopiagintzako suntsigarriak, bulegoko materiala, elkarte zientifikoetako kuotak eta argitalpenetako harpidetzak.
- Mota guztietako asistentzia jardueri lotutako gastuak, deialdi honen helburu den ikerketa proiektuarekin zerikusia dutenak barne.
- Protokoloko otordu eta bestelakoen gastuak.

Eskaerak aurkezteko epeak:

Eskaerak **2022ko martxoaren 2tik 24ra** bitartean aurkeztu behar dira (**15:00ak arte**), biak barne.

Eskaerarako esteka:

<https://says.isciii.es/comun/inicio0.aspx?ta=1&anio=2022>

Eskaera egiteko prozedura:

Deialdian interesa izanez gero, eskaera betetzen hasi aurretik jarri harremanetan Ikerketaren arloko Errektoreordetzarekin (94 601 80 08 telefonoa), informazio garrantzitsuen berri jasotzeko.

Datuak aplikazioan sartu aurretik, Ikerketaren arloko Errektoreordetzara bidali beharko da, posta elektronikoz (igz.deialdiak@ehu.es) eta **martxoaren 14a baino lehen, Ikerketako webgunean** dagoen **Langileen excel fitxategia**, begiratzeko ikertaldeak betetzen dituen deialdiko baldintzak edo badagoen bateraezintasunen bat. Proposatutako langileak ontzat eman direla jakin ondoren, eskaerak modu elektronikoan beteko dira ISCIII institutuaren webgunean.

Eskaerak eta gainerako dokumentuak aurkezteko era bakarra aplikazio informatikoa izango da, <https://sede.isciii.gob.es> (Trámites más usados. Acción Estratégica y Salud. Ayudas y Subvenciones) **egoitza elektronikoaren bitartez, zeina ISCIII institutuaren erregistro elektronikoarekin konektatuta dagoen.**

Ordezkarri legalaren sinadura elektronikoa lortzeko, **eskaera aurkezteko ezinbestekoa den bakarra**, mezu bat bidali beharko da igz.deialdiak@ehu.es helbidera **martxoaren 21a baino lehen**, non adieraziko den eskaera sortua dagoela, sinatzeko. Mezuari honako hauek atxikiko zaizkio:

- Sortutako **eskaera inprimakia**
- Proiektuaren **memoria**

- Ikertzaile nagusiaren curriculum vitae laburra (eta beste ikertzaile nagusirik egonez gero, horiena), automatikoki sortua CVN editorean edo CVA-ISCIIE zerbitzua eskaintzen duen FECYTren CVN arauan ziurtatutako edozein erakundek sortua.
- Koordinazio txostena (proiektu koordinatuen edo zentro anitzeko proiektuen kasuan).

GARRANTZITSUA: ISCIIE institutuaren tramiteei dagokienez, **eskaera, memoria eta ikertzaile nagusien CV** ez badira aurkezten **epaeren barruan, eta dokumentu arautuak erabilia**, ez da egongo eperik zuzenketak egiteko eta eskaera deialditik kanpo geratuko da onartzeko tramitean.

Gainera, eskaerekin batera deialdiko 85.2 artikuluan aipatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Aplikazio telematikoaren bidez tramitatutako eskaeren kasuan **erakunde eskatzaileko ordezkari legalaren sinadura baino ez da izango beharrezkoa**. Deialdiak, hala ere, eskatzen dio erakunde onuradunari gordetzeko proiektuetan parte hartzen duten gainontzeko pertsonen jatorrizko sinadurak, eta ziurta dezala egiazkoak direla. Horregatik, prozesua amaitu eta gero, ahalik eta lasterren bidali beharko da Ikerketaren arloko Errektoreordetzara (Deialdien atala) **eskaeraren ale bat**, postaz, **non agertuko diren ikertzaile nagusiaren eta taldean parte hartzen duten gainontzeko kideen sinadurak**.

Ez da sinatutako barruko epea baino beranduago helduko den eskaerarik, **eta besterik gabe geratuko da hautaketa prozesutik kanpo.**

Informazio gehiago:

Hauetako eskaera betetzeko beharrezkoak diren erakundearen (UPV/EHU) datuak:

- **IFK:** Q4818001-B
- **Egoitza soziala:** Sarriena auzoa z.g. - 48940 Leioa.
- **Ordezkari legala:** Inmaculada Arostegui Madariaga
- **Kargua:** Ikerketaren arloko errektoreordea

Gomendatzen da irakurtzea ISCIIE institutuaren webguneko ohiko galderen atala:

<https://www.iscii.es/QueHacemos/Financiacion/solicitudes/Paginas/default.aspx>

Informazioa UPV/EHU:

Telefonoa.: 94 601 80 08

Posta elektronikoa: igz.deialdiak@ehu.es